**INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIORAKO TEKNOLOGIAK**
**IKASTETXE MAILAKO PROIEKTUA**

---

Haur eta Lehen Hezkuntzako curriculumek adierazten duten moduan, ikasleak baliabide digitalak erabiltzen hasi eta trebatu behar dira. Hortaz, aurten ikastolan gure IKT proiektua garatu eta aurrera eramatea ezinbestekotzat jotzen dugu. Proiektuhonek Hezkuntza Departamentuak argitaratutako araudiarekin bat egiten du, izan ere:

| **Haur Hezkuntza (23/2007 Foru Dekretua)** |
|---|
| 1. Ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren hizkuntzak ere haurren bizitzaren parte dira, eta horiek hezkuntzaren aldetik landu beharra dago; horretarako, erabileratik abiatuta, ikus-entzunezko mezuen ulermena eta erabilera egokia landuko dira.<br>2. Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena arloan “Ordenagailua, kamera, soinuaren eta irudien erreproduzitzaileak eta bestelako baliabide teknologikoak erabiltzen hastea” helburua zehazten da. |
| **Lehen Hezkuntza (60/2014 Foru Dekretua)** |
| 1. Etaparako helburu bat “Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasketarako erabiltzen hastea, eta jasotzen eta lantzen diren mezuen aurrean jarrera kritikoa hartzea” da.<br>2. Gaitasun Digitala etaparako zehaztutako Gaitasunetako bat da.<br>3. Arlo ezberdinetan baliabide digitalak erabiltzea zehazten da eta eskolan hori gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da ikasleek horietan trebatzea. |

Ana Bengoetxeak dioenez, “IKTek izugarrizko eragina dute hezkuntza munduan eta gaitasunak garatzeko laguntzaile paregabeak dira. Hasteko, esan daiteke IKT-ak beharrezkoak direla gaur egun mundutik mugitzeko eta eskolak erabili behar ditu bere funtzioa ikasle guztiak gaurko munduan aritzeko eta egoera desberdinetan konpetenteak izateko prestatu behar dituelako.”

Gure asmo handiena Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako maila guztietan Gaitasun Digitala garatzeko helburu, eduki, jarduera eta baliabideen planifikazioa zehaztea da. Helburu nagusiena ikasleak eskolatik ateratzen direnerako bizitzan beharrezkoak izango dituzten oinarrizko trebetasun digitalak garatzea da.

Egoera honetan ere, ikasleei etxean beharrezkoa den arreta digitala emateak garrantzi handia hartu du eta proiektuak hori kontuan hartzen du. Gure proposamenak ikasle guztiek bizitzan digitalki gai izateko beharrezkoak izango dituzten trebetasunak garatzea bilatzen du.

Horrela, gure helburu nagusiah honako hauek dira:

1. Ikasleek Gaitasun Digitala garatzeko, eskola-mailako Programazioa eta sekuentziazioa sortu eta martxan jarri.
2. Ikasleek etxean Informazio eta Komunikaziorako Teknologietara duten sarbidea eta baliabide digitalen informazioaren bilketa egin eta eskola-mailako Programazio eta sekuentziazioan behar horiek ikasleekin landu beharreko helburu bezala txertatzea.

**TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y LA COMUNICACIÓN**
**PROYECTO INTEGRAL DE CENTRO**

---

Tal y como indican los currículum de Educación Infantil y Primaria, el alumnado debe iniciarse y formarse en el uso de los recursos digitales. Por lo tanto, este año consideramos imprescindible desarrollar y llevar a cabo nuestro proyecto TIC en la ikastola. Este proyecto se ajusta a la normativa publicada por el Departamento de Educación, ya que:

**Educación Infantil (Decreto Foral 23/2007)**

1. El lenguaje audiovisual y las tecnologías de la información y la comunicación presentes en la vida infantil, requieren un tratamiento educativo que, a partir del uso, inicie a en la comprensión de los mensajes audiovisuales y en su utilización adecuada.
2. En el área del idioma: comunicación y representación se establece como objetivo la iniciación en el uso de instrumentos tecnológicos como ordenador, cámara o reproductores de sonido e imagen.

**Educación Primaria (Decreto Foral 60/2014)**

1. Un objetivo de la etapa es "Iniciarse en la utilización, para el aprendizaje, de las tecnologías de la información y la comunicación desarrollando un espíritu crítico ante los mensajes que reciben y elaboran.".
2. La Competencia Digital es una de las Competencias definidas para la etapa.
3. Se especifica la utilización de recursos digitales en las diferentes áreas y para poder llevarlo a cabo en la escuela es imprescindible que el alumnado se forme en ellos.

Según Ana Bengoetxea "Las TIC tienen una enorme influencia en el mundo educativo y son un excelente colaborador para el desarrollo de competencias. Para empezar, se puede decir que las TIC son necesarias hoy en día para moverse por el mundo y que la escuela debe utilizar su función para preparar a todos/as los/as alumnos y alumnas para trabajar en el mundo actual y ser competentes en diferentes situaciones. "

Nuestro mayor propósito es definir la planificación de objetivos, contenidos, actividades y recursos para el desarrollo de la Competencia Digital en todos los cursos de Educación Infantil y Primaria. El objetivo principal es desarrollar las habilidades digitales básicas que serán necesarias en la vida para cuando los alumnos y alumnas salgan de la ikastola.

También en esta situación, la atención digital del alumnado en el hogar ha adquirido gran importancia y el proyecto lo tiene en cuenta. Nuestra propuesta busca que todos los alumnos y alumnas desarrollen las habilidades necesarias para ser digitalmente capaces en la vida.

Así, nuestros objetivos principales son los siguientes:

1. Crear y poner en marcha la programación y secuenciación a nivel escolar para el desarrollo de la Competencia Digital por parte del alumnado.
2. El acceso del alumnado a las Tecnologías de la Información y Comunicación en el domicilio y la recopilación de la información de los recursos digitales y la integración de estas necesidades en la programación y secuenciación a nivel escolar.